



JANGELA ZERBITZUARI BURUZKO ARAUDIA

- 1.- Jangela zerbitzuaren kostua urtekoa da, eta 10 hileko kuotatan banatzen da.
- 2.- Jangela zerbitzuaren kontratazioa ikasturte osorako egiten da; beraz, ez da aurreikusten zerbitzua egun solteetan edo hilabete jakin batzuetan erabiltzeko aukerarik.
- 3.- DBHko eta Batxilergoko mailetan jangela zerbitzuaren baja eska daiteke, baina honako hau kontuan hartuta:
 - a.- Zerbitzu honen baja-eskaera aurreko hilaren 20a baino lehen egin beharko da, comedor@colegiourdaneta.com helbidera mezu elektronikoa bidaliz. Nolanahi ere, bajak behin betiko eragina izango du ikasturte osorako.
 - b.- Ikasturtean zehar jangela zerbitzuan baja emateak zerbitzu honen antolaketan eta kudeaketan eragina duenez, baja egiteak kalte-ordain gisa hileko kuotaren erdiaren baliokidea den zenbateko gehigarri bat ordaintzea ekarriko du. Zenbateko hori baja indarrean hasten den hileko ordainagirian fakturatuko da.
 - c.- Jangela zerbitzuan baja emateko azken hilabetea apirila izango da.
- 4.- Jangela zerbitzua erabiltzen ez duen ikasleak eskolako jangela ondoko gunea erabili beharko du, eta hilean 20 euroko zenbatekoa kobratuko zaio zerbitzu, garbiketa eta zaintza kontzeptuengatik.